

Jesus'en Biotza

1

Gurasorik ez dagon
etxea bai otza!
Ez dalako entzuten
aitaren dei-otsa,
umeak asten dira
ez bildur ez lotsa;
nunai gero ixten dabe
ezagun lorrotza.

2

Jesus'en Biotzaren
irudi maitiak
ondo gordetan zitun
gure baserriak..
Gauza asko dakiez
gure atariak..
Jesus «guraso» gendun,
gu bere semiak.

3

«Euskalduna fededun»,
esan zan antxiña,
ez dakit gaur garean
berba orren diña;
maiteago ditugu
atseden ariña
ta bizitz errezaren
poz eta atsegñña.

4

Baserritik igesik
atseinei begira,
amarka neska mutil
kalera jun dira...!
radioa dakarra
Jesus'en tokira...
otoitz ordeztutua,
eskaratzt erdira.

5

Jatordu ta lotako
aterpea-edo...
etxea ostatutzat
artzen dabe gero,
etxe bizitzia, iguin,
halerako bero,
zintera sarri-sarri,
alez egunero.

6

Errezetako eurek
bildur eta lotsa,
eleiza kontuetan
semeak izotza.
«Gurasorik» ez dagon
etxea bai otza!
Sendiak berotzeko
JESUS'EN BIOTZA.

Damaso, C. P.